

AZTERKETA ARAUAK 2022-2023.

HAUTAGAIENTZAKO JARRAIBIDEAK.

1. JARRAIBIDE OROKORRAK.

- Proba idatzia eta ahozkoa egitera etortzen denak NAN, AIZ edo Pasaportea ekarri beharko du.
- Azterketak iragarritako orduan hasiko dira.

Hautagaiak **15 minutu lehenago** aurkeztu beharko dira, kasu hauetan izan ezik:

- **Euskarazko idatzizko azterketak:** hautagaiak **30 minutu lehenago aurkeztu beharko dute C1 mailako idatzizko proba egiteko eta 25 minutu lehenago B2 eta B1 mailetan (Lizarraluzarra luzapena izan ezik, 15 minutu lehenago)**. Hautagai kopurua dela eta, HEOPetik kanpo azterketa egiteko egoitzak ezarri behar badira, behar diren denboraldiak adieraziko dira hemen.
- Ingelesazko idatzizko azterketak:
Hautagaiak **30 minutu lehenago** aurkeztu beharko dira (**Lizarrako luzapena ezik, 15 minutu lehenago**).

- Proba idatzia eta ahozko proba egitera etorri dela ziurtatzen duten egiaztagiriak proba bukatutakoan bakarrik emango dira.
- Bizikidetzaren aurkako jokabideek, abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretuaren arabera, azterketa, proba edo ariketaren kalifikazio negatiboak ekarriko dute. Halaber, egokitzen diren eta ikasleen betebeharrei buruz indarra duen araudian jasotzen diren neurri guztiak aplikatzen ahalko dira.

- Telefono mugikorrek eta beste edozein gailu elektronikoko (tabletak, erloju adimendunak, etab.) une oro itzalita egon behar dute eta alarmak desaktibatuta.
- Hautagaien erantzukizuna da beren idazketa-materiala izatea.
- Azterketa berrikusteko araudia eta epeak web orrian daude.
- Azterketa osoa gainditu eta dagokion ziurtagiria lortzeko, gutxienez 6,5 puntu lortu beharko dira guztira.

Gai kalifikazioa lortzeko, hizkuntzaren jardura bakoitzeko nota gutxienez 5 izango da.

Proba batean edo gehiagotan gutxienez 5 puntu lortuz gero, azken emaitza "Gai" izan daiteke, baldin eta proba guztien batez besteko aritmetikoa 6,5 puntukoa edo hortik gorakoa bada (ikus egiaztatze- eta sustapen-irizpideei buruzko araudiaren laburpena).

- Ohiko deialdian (maiatza/ekaina) 6,5 puntu lortzen ez dituenak, gutxienez 5 puntu lortu ez dituen hizkuntza-jardura guztiak berreskuratu behar izateaz gain, iraileko ezohiko deialdian berriro aztertu ahal izango dira 6,5 puntu lortu ez dituzten alderdi guztiak.
- Hautagaia ekaineko deialdian nahiz iraileko deialdian aurkezten den alde guztietarako, azken puntuazioa izanen da lortu duen onena.

•

2. DENBORAK ETA/EDO BITARTEKOAK EGOKITZEKO ESKAERA

- Elbarritasun edo ezgaitasun ziurtagiriarekin ohiko baliabideekin ziurtagiri-probak egitea ezinezkoa dela justifikatzen dutenek, **2023ko apirilaren 24ko 23:59** baino lehen, denbora eta baliabideen egokitzapena eskatu ahal izango dute.
- Hezkuntza Departamentuak, %33ko edo hortik gorako elbarritasuna izanez gero, ezgaitasun motaren eta graduaren arabera hartu beharreko neurriei buruzko aholkuak emango.
- Halaber, premia bereziak dituzten ikasleek behar den egokitzapena eskatu

beharko dute, fakultatibo espezialistaren txosten-
eskabidearekin batera, **2023ko apirilaren 24ko 23:59 baino lehen.**

- **Epez kanpo aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko**
- Eskakerak eta behar den dokumentazioa formulario honen bidez aurkeztuko dira: DENBORA/BALIABIDEEN EGOKITZAPENA ESKATZEKO INPRIMAKIRAKO
- Eskabidea @educacion.navarra.es edo @gmail.com kontu baten bidez bakarrik eskuratu ahal izango da.

3- IDATZIZKO AZTERKETA.

- Ezin izango da azterketa utzi azterketa hasi eta 15 minutu igaro arte.
- Audioeuskarriak ematen diren bitartean ez da onartuko azterketara sartzea.
- Azterketetan ez dira zuzenduko hautagaiek beren erantzunak adierazitako tokian erregistratu ez badituzte, azterketako jarraibideetan zehazten den bezala.
- Bat markatu nahi den hautapen proban bi erantzun edo gehiago markatzen ba dira, erantzuna baliogabetu izango da.
- Zuzenketa optikoko orriak, baldin badaude, arkatzez betetzen dira.
- Hautagaiek boligrafo urdina edo beltza erabili behar dute idatzizko adierazpenaren eta idatzizko bitartekotzaren zatiei dagozkien lanak egiteko. Ezabagarria den tintazko arkatz edo boligrafoz idatzitako probak ez dira zuzen duko
- Hautagaiek letra argi eta irakurgarriz idatzi behar dute, letra larririk gabe, eta nahasteko moduko tatxonik gabe.
- Ez da onartuko idazketa materialak baino objektu gehiago mahaiaren gainean.
- Entregatutako dokumentu guztiak, zirriborro orria barne, gelatik atera aurretik itzuliko dira.

3. AHOZKO PROBAK.

- Ahozko probak bikoteka edo hiruak eginen dituzte hautagaiek.
- Ahozko azterketa Ahozko Bitartekotzaren probarekin hasten da, eta haren bat ez besteko kalifikazioa Idatzizko Bitartekotzaren probaren bidez lortzen da.



- Bitartekaritza, beraz, **nota bakarrekin** kalifikatzen da, eta nota hori Ahozko Bitartekotza eta Idatzizko Bitartekotza zatien batez besteko aritmetikotik
- lortzen da. Ohiko deialdian (ekaina) trebetasuna gainditzen ez badute, hautagaiek bi lzatiak (ahozkoa eta idatzia) errepikatu beharko dituzte iraileko deialdi berezian.
- Ahozko Bitartekaritzaren proba egin ondoren, hautagaiek Ahozko Adierazpenaren proba egiten dute (produkzioa eta koprodukzioa).
- Ahozko proba guztiak grabatuko dira
- Ahozko probaren ordua aldatzeko eskaeraren araudia webgunean dago.

[Azterketei buruzko informazio gehiago Hezkuntza Departamentuaren webgunean argitaratutako Azterketa Gidetan.](#)